



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Loiuko Udala

Udal araudia egiteko prozedura egin aurreko kontsulta publikorako jarraibideak onestea.

UDAL-ARAUDIAK ETA ORDENANTZAK SORTZEKO PROZEDURAN,
ALDEZ AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOA, ENTZUNALDIA ETA
INFORMAZIO PUBLIKOARI BURUZKO GIDALERROAK

I. KAPITULUA
GIDALERROEN XEDEA

1. Xedea

1.1. Gidalerro hauen xedea da aldez aurretiko kontsulta publikoa gehitzea udal-arauak sortzeko prozeduran, baita entzunaldia egiteko eta jendaurrean erakusteko izapideak ere. Izan ere, izapide horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan jasota daude.

1.2. Ordenantzen eta araudien aurreproiektuak eta proiektuak idatzi aurretik, kontsulta publikoa egingo da Loiuko Udalaren webgunean (www.loiu.eus). Beraren bidez, herritarren iritzia jasoko dira, hala nola lantzen ari diren arau horien eragina jasan dezaketen erakundeena eta erakunde adierazgarriena; hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluari jarraikiz.

1.3. Halaber, komunikabide berean argitaratuko da ordenantzen eta araudien aurreproiektu eta proiektuen testua, herritarren eskubide eta interes legitimoetan eragiten badu. Hala, entzunaldia eskainiko zaie eragin hori jasango duten herritarrei, eta gainerako herritarren zein erakundeen ekarpenak ere jaso ahalko dira.

II. KAPITULUA
ALDEZ AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOA

2. Aplikazio-eremua

2.1. Osoko bilkuran onesteko aurkeztuko diren ordenantzen eta araudien proiektuak idatzi baino lehen, kontsulta publikoa egin beharko da.

2.2. Aldez aurretiko kontsulta publikoa egitetik salbuetsita egongo dira aurrekontuei eta antolamenduari buruzko arauak onesteko ekimenak, baita haien arloa dela-eta lege bereziek arautu dituzten administrazio-prozedurak ere. Prozedura horien kasuan, aipatutako lege berezien xedapenei jarraikiz gauzatuko dira.

2.3. Betiere ekimena proposatu duen organoak justifikatu badu, ez da aldez aurretiko kontsulta publikoko izapiderik egingo honako kasu hauetan:

- a) Horixe justifikatzen duten interes publikoko arrazoi larriak daudenean.
- b) Arau-ekimenez ez dutenean behin betiko eraginik jarduera ekonomikoan.
- c) Xede dituen hartzaileei betebeharrak handirik ezartzen ez dienean.
- d) Gai baten alderdi partzialak arautzen dituztenean.

**3. Aldez aurretiko kontsulta publikoaren edukia**

Ekimena proposatzen duen erakundea arduratuko da kontsultaren edukia ezartzeaz. Edukiak ondoko alderdiak jaso beharko ditu gutxienez:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren xedea.
- d) Planteatutako arazoa konpondu dezaketen bestelako aukera erregulatzailerik ezin ez-erregulatzailerik.

4. Epeak eta hartzaileak

4.1. Ekimenen aldez aurretiko kontsulta publikoak, gehienez ere, egutegiko hamabost egunez egingo dira, udalaren webgunean txertatzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

4.2. Aldez aurretiko kontsulta publikoak 16 urtetik gorako pertsona fisikoei zuzenduta egongo dira, hala nola etorkizuneko arauen eragina jasan dezaketen legez eraturako elkarte eta erakundeei.

5. Prozedura

5.1. Ekimena proposatzen duen erakundeak horren berri emango dio Udaleko Alkatetza-Udalburutzari, gidalerro hauen 3. artikulua ezarritako dokumentazioarekin eta edukiarekin batera.

5.2. Alkatetzari dagokio aldez aurretiko kontsulta publikoa egiteko eskumena.

5.3. Alkatetza-Udalburutzak aldez aurretiko kontsulta egitea erabaki ostean, erakundearen web-atarian iragarki bat argitaratuko da. Horrela, jasota geratuko dira planteatzen den ekimena eta gidalerro hauen 4.2. artikulua zehaztutako subjektuek duten epea iritzia eta ekarpenak aurkezteko, aurrez aurre edo egoitza elektronikoan.

6. Ordenantzen eta araudien aurreproiektu eta proiektuak

Kontsulta egin ostean, ekimena proposatu duen erakundeak prestatuko du behin betiko erabaki duen aurreproiektu edo proiektua edo, bestela, baloratuko ditu hori egiteko aukera-eza edota desegokitasuna.

III. KAPITULUA**ENTZUNALDIA ETA JENDAURREAN ERAKUSTEA****7. Entzunaldia eta jendaurrean erakustea**

7.1. Aldez aurretiko kontsulta publikoa egitea gorabehera, arauak eraginik baldin badute pertsonen eskubide eta interes legitimoetan, Udaleko Alkatetza-Udalburutzak ordenantzen eta araudien aurreproiektuak eta proiektuak argitaratuko ditu erakundearen web-atarian; hain zuzen ere, horien eragina jasango duten herritarrei entzunaldia eskaintze aldera, eta gainerako pertsona eta erakundeei egin ditzaketen bestelako ekarpenak jasotzeko.

7.2. Bestalde, legeak onartutako erakunde eta elkarten iritzia ere zuzenean jasoko da, baldin eta arauen ondorioz beren eskubide edo interes legitimoetan eragina jasango duten pertsonak biltzen edo ordezkatzeko badituzte eta beren helburuak arauaren xedearekin zerikusi zuzena badute.

8. Prozedura

8.1. Entzunaldiak nahiz jendaurreko erakustaldiak egutegiko hamar egunez egingo dira, udalaren webgunean txertatzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

8.2. Epe hori amaitutakoan, ekimena proposatu duen erakundeak ordenantzaren edo araudiaren behin betiko testua idatziko du, eta osoko bilkuran aurkeztuko du onetsi dezaten. Nolanahi ere, txostenak egiteko eskatu ahalko zaio testua onetsi aurretik.

**IV. KAPITULUA**

DATUEN BABESA ETA JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOA

9. Datu pertsonalak eta jakinarazpen elektronikoak

9.1. Aldez aurretiko kontsulta publikoan parte hartzen duten pertsona fisikoen datu pertsonalen babesa bermatzeko neurri zehatzak edukiko ditu webguneak, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legeak ezarritako baldintzen arabera.

9.2. Halaber, webguneak neurri zehatzak izango ditu, bermatzeko aldez aurretiko kontsulta publikoa izapidetzean egindako jakinarazpen elektronikoek bide ematen dutela jasota geratu dadin jakinarazpenok igorri eta jaso direla (ordua eta eguna adierazita), baita haien eduki osoa ere.

9.3. Modu berean, web-atariak ahalbidetu beharko du kontsulta publikoko parte-hartzaileak fidagarritasunez identifikatzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako baldintzen arabera.

Loiun, 2017ko azaroaren 7an.— Alkatea, Josu Andoni Begoña Fernández de Arroiabe